

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Gobernuak Administrazioko langileentzako neurriak onartu ditu, sindikatuekin Foru Lege Dekretu bidez adostuak

*Batzorde Paritarioan hitzartutako testuan, zenbait posturen mailak eta ordainsari-osagarriak igotzea jasotzen da*

Asteazkena, 2018.eko urriak 24

Nafarroako Gobernuak gaurko bileran Foru Lege Dekretu bat onartu du, eta, horren bitartez, Nafarroako Foru Komunitateko eta haren erakunde autonomoetako Administrazioaren zerbitzura dauden langileentzako neurriak onartzen dira aurtengo urteari begira. Neurriak urriaren 4an adostu zituen Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justiziako kontseilaria den Maria Jose Beaumontek LAB, CCOO eta UGT sindikatuekin.

Zehazki, neurriak zenbait posturen mailak kokatzeari eta ordainsarien osagarriak igotzeari buruzkoak dira, eta atzeraeraginez aplikatu beharko dira, 2018ko urtarrilaren 1era arte.

Exekutiboak onartu ondoren, testua Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sartuko da indarrean. Halaber, Nafarroako Parlamentura bidaliko da, baliozkotu dezan.

Gogoratu behar da kontseilariak urriaren 4an sinatu zuela aipatu sindikatuetakoa ordezkariekin enplegu publikoa eta lan-baldintzak hobetzeko eta funts osagarriak banatzeko 2018ko martxoaren 9ko II. Akordioa lehen atalean aurreikusitakoa aplikatzeari buruzko Akordioa; era horretan, Nafarroak soldata-masa %0,30 igotzeko aukera zuen.

Urriaren 4ko Akordioa bosgarren atalean, Administrazioko ordezkariak eta sinatzen duten sindikatuak osatutako Batzorde Paritarioa sortzea jasotzen da; batzordearen eginkizuna izango da Akordioaren edukia interpretatzea, horren segimendua egitea, zaintzea eta garatzea.

Hain zuzen ere, aipatu Batzorde Paritarioak pasa den urriaren 19an egindako bileran Akordioa sinaturiko sindikatuekin negoziatu zuten Foru Lege Dekretuaren testua, eta gaur goizean Gobernuaren bilkuran onartu egin dute.